


Zeru-trukaketa · Intercambio de cielos · Himmelstausch

Gernika eta Berlinerako proiektua · Proyecto para Gernika y Berlín · Projekt für Gernika und Berlin

2. Atala: Gernika

Hegaldiaren ibilbidea,
2019/09/21



Portua. Santurtzi eta Geboko portuetan errepublikarren homiketa ontziak porturatu ziren, beranduago, errefuxiatuz beletako ontziak irten ziren handik. 20.000 haur ebakuatu ziren horrela. Euskal ofizial eta funtzionario ugari ere itsaso bidez egin zuten ihes. Itsasontzi asko Bizkaiko Golkoan hondoratu ziren.

Gernika 1937ko apirilaren 26an, Gernika, euskaldunen "hiri sakratua", errausi bihurtu zuen Cándor Legioak, italiar militarren babesarekin. Gernikako hantzak (Gernikako Arbola), askatasunaren sinbolo tradizionala, Bizkaiko armarian zein Euskal Herrikoan agertzen dena, bizirik iraun zuen. Hantzairen alda:ka batzuk, bosgarren belaunaldia dagoeneko, laguntasun sinbolo gisa oinarritu dira, Pforzheim hirian, esaterako, Gernikarekin senidetuak dira.



Bizkaiko Zubia. Errepublikarrek Portugaleteko zubia suntsitu zuten, Francoren tropak geldiarazteko asmoz. 2006an Gizateriaren Ondare izendatu zen.



Barakaldo hainbat aldez bombardatu zuten. Bombardaketa asko Gernikakoaren hurrengo egunean izan ziren.



Bilbo. Portu eta industria hiria, sasoi hartan Euskal Herriko hiriburua zena, aire bidez erasotu zuten, bat-batean. »Burdin Hesiak« ezin izan zuten babestu. Francoren soldaduek Bilbon sartu ziren 1937ko ekainaren 19an. 200.000 pertsonak egin zuten ihes hiritik, eta ihesi zihozela ere, lurrik gertu hegazkinen hegazkinen eraso egin zieten.



Galdakao Bilboko »Burdin Hesiaren« barruan zegoen, eta 1937ko ekainaren 16an konkistatu zuten, hiriburua baino lau egun lehenago.



Amorebieta-Etxano 1937ko maiatzaren 14 eta 16an bombardatu zuten, eta urte bereko maiatzaren 18an hartu zuten.

Morga. Gernika hartu ostean, Francoren tropak Bilbora gerturatzaren hasi ziren, eta maiatzaren 18an Morga inbaditu zuten.

Larrabetzun hegazkinetako bat botatu zuten. Herriaren sameran, eronlako pilotuaren omenezko hilari bat dago.



Durango pilotalekuan bonba bat eron zen 1936ko azaroaren 25ean, eta hamabi pertsona hil zituen. 1937ko martxoaren 31n, Iparraldeko Ofentsiban, faxistek berri ere erasotu zuten hiria, batez ere italiar bonbaketa bidez. 250 pertsona hil zituzten, honen artean apaizak, monjak eta elizan zeuden pertsonak.



Otxandio izan zen airelik bombardatu zuten lehen herria, Gerra Zibilean, Franco Generalaren kolpea baino egun batzuk beranduago.

»Zeru-Trukaketa« izeneko performance lana bakearen kulturara bideratutako ekarpen artistiko bat da. Gernikako zeruko hodeiez margotutako pankarta bat Berlin hiria iren gainetik ibiliko da hegazkin batekin, abioneta batek eramanda, eta Berlingo hodeiez margotutako beste bat, Gernikan eta inguruetan zehar.

Proiektu honen oinarri historikoa Espainiako Gerra Zibila da (1936-39). Alemaniako nazionalsozialistek parte hartu zuten guda horretan, Espainiara Cándor Legioa bidaliz, Errepublikari Gobernaren aurkako estatu kolpean Franco generalari laguntzeko. 1937an, Iparraldeko Ofentsiba iraun bitartean, Cándor Legioak herri asko suntsitu zituen airetik, batez ere Bizkaian (Euskal Herriko lurraldea). Gernika, euskaldunen »herri sakratua«, herritarren aurka burututako gerra krimenen sinbolo bihurtu da. Berlingo zeruko pankartaren eta egingo den ibilbidearen bidez, kontrako adierazi nahi da, mezu positibo bat helarazi.

- Pankartako pilotua: Thomas Hennig, Berlin
- Eskolta hegazkina: Juanjo San Sebastián
- Hegaldiaren iraupena: 11:00-14:00, gubxi gora behera
- Kontzeptua, grafikoa: © Michael Klant
- Plangintza egoera: 2019-09-15

Gernika Gogoratzuz
Bakearen Aldeko Aztertokia
Centro de Investigación por la Paz
Peace Research Center



Dima. Bannerra darman hegazkina Dimako aerodromo zaharrean hasiko da. Gerra Zibilean erabili zuten leku honi, eta gaur egun basogintza lanetarako erabiltzen da.



Aeródromo Dima

kulturetxea
GERNIKA LUMO
Gernika-Lumo Fundazioa Perpetua